

Arte erromanikoa

X, XI. eta XII. mendeetan zehar **erromaniko** izeneko arte-estiloa garatu zen.

Garai hartan eraikitako eliza, monasterio eta katedralek **horma lodiak** zituzten, eta **leiho gutxi**, beraz, barrualde **oso iluna** zuten.

Aurrealdeak, ateak zein zutabeak eskulturekin apaintzen zituzten. Hormetan margolanak egiten ziren, eta horietan, gai erlijiosuak lantzen zituzten eta Bibliako irakaspenen berri ematen. Azken hori oso zen erabilgarria, Erdi Aroan oso jende gutxik baitzekien irakurtzen eta idazten.

Euskadin gaur arte iraun dute, besteak beste, honako eliza erromaniko hauek: Armentiaiko San Prudentzio basilika¹ eta Estibalizko Andre Mariaren santutegia² (Araba).


Arte gotikoa

XIII eta XIV. mendeetan arte-estilo berri batekin egin ziren eraikinak: **gotikoa**.


Katedral eta eliza gotikoak askoz **argitsuagoak** ziren erromanikoak baino. Tenpluaren barrualdea argitzen zuten **arrosa-leiho** eta leiho handiak zituzten, bai eta koloretako **beirateak** ere. Arkitektura-teknika berriei esker, elizak **altuagoak** ziren.

Margolan eta eskultura gotikoek figura erlijiosuak irudikatzen zituzten. Erromanikoak baino errealistagoak ziren eta mugimendu gehiago zuten.

Euskadin nabarmentzen dira Gasteizko katedrala³ eta Bilboko katedrala⁴, eta elizak, hala nola Lekeitioko Andre Mariarena⁵.



Katedral erromanikoa



Katedral gotikoa

JARDUERA ➤ Bi arte mota hauek hobeto bereizteko klikatu [hemen](#)